

2022KO OTSAILAREN 20AN OSPATUKO DEN IRUNGO MARATOI ERDI ETA 10K-RAKO COVID-19 PROTOKOLOA

1. EREMUA. KIROL-PROBARI BURUZKO INFORMAZIOA:

- a) Protokolo honek IRUNGO MARATOI ERDIA +10K antolatzeko hartuko diren neurriak deskribatzen ditu. Horren helburua COVID-19 birusa kutsatzeko arriskuak gutxitzeko beharrezko neurriak ezartzea da.

Ekitaldi zehatz honetarako, [COVID-19aren transmisioa prebenitzeko protokolo eta plan espezifikoak egiteko osasun publikoko jarraibideak](#), kontutan hartuko dira, bereziki kirol-probak antolatzeko neurri espezifikoak eta bertaratzten direnen atalari dagokienez.

Protokolo hau osasun-egoeraren arabera gerta daitezkeen aldaketen mende dago, eta horrek, ezinbesteko arrazoiengatik, proba bertan behera uztea ere ekar dezake.

- b) IRUNGO MARATOI ERDIA +10K 2022ko otsailaren 20an, igandea, egiten den kirol-ekitaldia da. Ibilbidea 21,0975 eta 10 kilometrokoa da, hurrenez hurren. Irteera Irungo Kolon pasealekuan dago, 34 zenbakiaren parean gutxi gorabehera, eta San Juan plazan amaitzen da.

900 eta 1.200 pertsona arteko parte-hartzea espero da, eta pertsona gehienek jatorria Gipuzkoa izango da. Lasterketa honetan ikusle kopuru moderatua espero da, batez ere parte-hartzaile senideak, bolondresak eta antolakuntzako kideak. Parte-hartzaileen artean ez dago kontaktu fisikorik.

2. IRUNGO MARATOI ERDIRAKO + 10K NEURRI ESPEZIFIKOAK

Protokolo honetan une honetan nahitaez bete beharreko neurri guztiak hartu dira kontuan, baina Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunei dagokie ekitaldiaren azken baimena ematea eta, hala badagokio, gehieneko parte-hartzaile kopurua ezartzea.

OSASUN PREBENTZIO PLANA

2.1 Kontsiderazio orokorrak

- Antolakuntzak protokolo honetan hartutako **higiene- eta urruntze-neurri guztiak betearazteko arduradun bat** izendatu du. Pertsona horrek ekitaldian bai bolondresak, bai probako parte-hartzaileek hartu beharreko neurriak koordinatu eta gainerako lan-arloetako eta antolaketako arduradunei helaraziko dizkie.

- **Lasterketaren aurretik eta ondoren, antolakuntzako kideek eta parte-hartzaileek maskarak erabili beharko dituzte.** Antolakuntzak erabili eta botatzeko maskarak eta eskularruak antolakuntza kideei eta bolondresei soilik emango dizkie, eta kontingentzia-kopuru bat behar medikoetarako aurreikusiko du. Gainerako parte-hartzaile guztiek babes-elementu propioak ekarri beharko dituzte.
- **Antolatzaileen eta parte-hartzaileen arteko harremana 1,5 metroko distantzia mantenduz egingo da.**
- **Antolakuntzako kideen prebentzio-neurriak:** Nahitaezko bete beharreko neurriekin dossier bat eta jarduteko protokolo bat helaraziko ditu antolakuntzak.
- **Gel-hidroalkoholikoa** egongo da eremu komun guztietan.
- Lasterketa honen antolaketan sortutako **hondakin sanitarioak**, indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira.

2.2 Komunikazio plana

- Parte-hartzaileei eta antolakuntzako kideei proban parte hartzeko eman beharreko gomendio eta betebeharrak guztien komunikazioa indartuko da, sare sozialen, webgunearen, posta elektronikoen eta lasterketaren egunean megafoniaren bitartez.
- Era berean, parte-hartzaile guztiek irakurri eta onartu beharko dute COVID-19aren aurka hartutako neurriei buruzko baimen informatua.

2.3 Lasterketaren zerbituz ezberdinen antolaketa

DORTSALEN JASOTZEA

- Dorsalak lasterketaren aurreko egunean Irungo Palmera-Montero eraikinean horretarako prestatutako areto batean jasoko dira. Dorsala probaren egunean bertan ere jaso ahal izango Kolon pasealekuko irteera-gunean aire zabalean kokatutako karpa batean. **DERRIGORREZKOA** izango da dorsala jasotzera joaten diren pertsonen maskara jantzita eramatea.

LASTERKETAREN IRTEERA

- Besteetatik berezita irteera-eremu independenteak antolatuko dira, parte-hartzaileak hainbat taldetan banatzeko asmoarekin. Eremu bakoitzean 200 korrikalari egongo dira gehienez. Parte-hartzaileak inskripzio momentua emandako bukatzeko denboraren arabera egongo dira kokatuta eremu horietan, non denbora hoberenetatik okerragotara ordenatuko dira. Horrela, lehen multzoan korrikalari azkarrenak irtengo dira, tropela beti luzatuta joatea erraztuz eta aurreratzeak eta pilaketak saihestuz. Horrela, parte-hartzaileen arteko distantzia nahikoa bermatuko da.
- Nahitaezkoa izango da irteera-eremuan eta lasterketa hasi arte maskara erabiltzea. Era berean, nahitaezkoa izango da iritsitakoan anoa-eremuan maskara erabiltzea.

- Irteera antolatzeko eta parte-hartzaileen arteko distantzia mantentzeko eremuak hesien eta zintaren bidez mugatuko dira.

HORNIDURA LIKIDOA

- Anoa-eremuetan antolakuntzako pertsona guztiek maskara eta eskularruak izango dituzte. Hornidura-produktuak (URA) eskariaren arabera eskuragarri egongo dira; horrela, antolakuntzako pertsonak izango dira parte-hartzaileei produktuak emango dizkietenak, eta ez dira parte-hartzaileen manipulazioaren eraginpean egongo. Produktuak emateko eremuen azalera handituko da, eta antolakuntzako kideek edukiera eta segurtasun-distantzia kontrolatuko dituzte hornidura jasotzen duten parte-hartzaileen artean.
- Lasterketaren amaierako hornidura: Parte-hartzaile bakoitzarentzako banakako poltsa itxi bat entregatuz egingo da. Noranzko bakarreko zirkulazio-bideak uneoro antolatuko dira, bai helmugako eremuan bertan, bai eremu honen sarrera eta irteeretan, pilaketak saihesteko.

HELMUGA

Korrikalarien iritsiera oso mailakatua denez, helmugaratzea ez da jende gehiegi pilatzen den puntua. Hala ere, protokolo honi jarraituko zaio, helmugan lasterkarien taldeak sor ez daitezen:

- Helmugako eremua San Juan plazan antolatuko da, aire zabalean, eta noranzko bakarreko zirkulazio-bide bat antolatuko da hornidura modu ordenatuan jasotzeko, pertsonen artean ezarritako distantzia fisikoa eutsiz eta maskara nahitaez erabiliz.
- Ikusleak eta lasterkarien laguntzaileak: Helmuga eremura ikusleen sarrera mugatuko da jende pilaketak saihesteko. Ibilbidean zehar ordea,, segurtasun-distantziak errespetatuz jarraitu ahal izango dute lasterketa.



3. SINTOMAK DITUZTEN PERTSONENTZAT COVID-19 KONTINGENTZIA PROTOKOLOA

Lasterketan zehar pertsona batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak azaltzen baditu, berehala jakinaraziko zaie agintari eskudunei eta probarako kontratatutako zerbitzu medikoari. Azken hauek jarraitu beharreko protokoloa zehaztuko dute. Parte-hartzaileek baliozko harremanetarako datuak eman beharko dituzte lasterketan izena emateko unean.

Irunen, 2021ko azaroak 25ean